



## TREBAKUNTZA 2013-03: ADITZAREN ASPEKTUA

Udal idazki askotan, denboraren aspektua ez da zuzen erabiltzen. Askotan, **-t(z)en** gaizki erabiltzen da, lekuz kanpo. Hona hemen zuzendu beharreko akatsak:

### OHIKO AKATSAK

1. *\*[Akta batean] Udalbatzak txostena onartzea **erabakitzen du**, eta, horrenbestez, bilera **bukatzen da**.*
2. *\*[Kronologia batean] 1998ko martxoa: hauteskundeak **egiten dira** eta XXX alderdiak **irabazten du** gehiengo osoz.*
3. *\*[Ahozkoan] **Sinatzen didazu** agiri hau, mesedez?*
4. *\*Araitz herria Nafarroan **aurkitzen da**, Oreatatik eta Lizartzatik oso gertu.*
5. *\*[Ahozkoan] Bihar zer ordutan **geratzen gara** liburutegira joateko?*
6. *\*[Ahozkoan] Isilik, mesedez. **Hasten dugu** bilera?*
7. *\*Administrari lanposturako azterketa 10:00etan hasi eta 11:30ean **bukatzen da**.*

### ZUZENKETAK ETA AZALPENA

1. **-t(z)en ezin da erabili bukatuta dauden ekintzak adierazteko.** Normalean, **ohiturak edo ohiko diren ekintzak adierazteko** erabiltzen da (Ad. **Astero gelditzen dira** futboleko jokatzeko.). Ekintza bukatuta badago, **“erabaki du”, “bukatu du”** eta horrelakoak erabili behar dira.

Ad. Udalbatzak txostena onartzea **erabaki du**, eta, horrenbestez, bilera **bukatu da**.

2. Gaztelaniaz zuzena da iraganeko gertaerez ari garela presente historikoa erabiltzea (ad. *en marzo de 1998 se convocan elecciones*). Euskaraz, horrelako kasuetan, **lehenaldia erabili behar da**.

Udal erri Euskaldunen Mankomunitatea

[www.uema.org](http://www.uema.org)

Donibane enparantza 1, 1.a  
48380 Aulesti  
Bizkaia  
94-627.91.95

Done Petri 14, behea  
20180 Oiartzun  
Gipuzkoa  
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra  
20.734 Azpeitia  
Gipuzkoa  
943-81.66.99

Ad. 1998ko martxoa: hauteskundeak **egin ziren** eta XXX alderdiak **irabazi zuen** gehiengo osoz.

3. Ekintza **etorkizunean** kokatzen bada, **ezin da -t(z)en erabili**. Nahiz eta ekintza hemendik segundo batera bakarrik izan, **-ko/-go erabili beharko dugu** euskaraz.

Ad. **Sinatuko didazu** agiri hau, mesedez?

4. Aurreko batean adierazi genuenez, **“aurkitzen da” gaztelaniazko “se encuentra” espresioaren kalkoa da**. Euskarazko forma zuzena eta jatorra **“dago”** da.

Ad. Araitz herria Nafarroan **dago**, Oreatatik eta Lizartzatik oso gertu.

Bestalde oso ohikoa da **“kokatuta dago”** espresioa erabiltzea, eta hori ere gaztelaniazko kalkoa da (=“está situad@”), **eta ez da zuzena**.

5. Goraxeago azaldu dugunez, ekintza **etorkizunean** kokatzen bada, **ezin da -t(z)en erabili**.

Ad. Bihar zer ordutan **geratuko gara** liburutegira joateko?

Ad. Isilik, mesedez. **Hasiko dugu** bilera?

Ad. Administrari lanposturako azterketa 10:00etan **hasi** eta 11:30ean **bukatuko da**.

\*\*\*\*\*

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin:

- Telefonoz: 94-6279195 (Iratxe)
- Posta elektronikoz: [iratxe.udalak@uema.org](mailto:iratxe.udalak@uema.org) (Iratxe)

Hurrengora arte!

Udal erri Euskaldunen Mankomunitatea  
[www.uema.org](http://www.uema.org)

Donibane enparantza 1, 1.a  
48380 Aulesti  
Bizkaia  
94-627.91.95

Done Petri 14, behea  
20180 Oiartzun  
Gipuzkoa  
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra  
20.734 Azpeitia  
Gipuzkoa  
943-81.66.99